

ONDO GERATZEN DIRA ZAPATA HAUEK?

Oinetakoen mundu mailako
ekoizpenaren gaineko ikuspegi orokorra



**ALDATU
ZURE ZAPATAK**

Sarrera

2

Oinetakoen industria etengabe hazten ari den sektoreetako bat da mundu mailako ekonomian. Dinamika horren arrazoia da, besteak beste, eskariaren igoera etengabea, bai Europan eta AEBn, bai herrialde ekoizle nagusietan, Txinan eta Indian, kasu. Gainera, oinetakoak ez dira jantzi funtzionaltzat soilik jotzen, hau da, lanerako eta eguneroko osagaitzat, baizik eta modako jantzi gisa erosten dira gero eta gehiago. Ondorioz, oinetakoak denboraldi bakoitzeko joeren mende daude, eta horrek ere eragina dauka eskarian.

Jantzigintzaren industrian bezala, oinetakoen hornidura-kateak ez dio globalizatzeari utzi 70eko hamarkadatik. Europan sektore honetako ekoizpenak behera egin duen arren¹, oraindik ere garrantzitsua da kontsumo kontinentalerako. Oro har, ekoizpena errenta txikikotzat jotzen diren herrialdeetara eramaten ari da, izan ere, oinetakoen ekoizpenaren prozesu batzuek eskulan handia behar dute, bereziki lehenengoetan. Ekoizpen-prozesuaren zenbait fase, palak josi², esaterako, eskuz egiten dira oraindik, eta, sarritan, etxean. Fase horrek oso kostu handiak izan ditzake lan-merkatu erregularizatuetan, Mendebaldeko Europan, adibidez, soldatak askoz ere handiagoak direlako eta kontratuzko estandarrak zorrotzagoak. Erregularizatu gabeko lan-merkatuetan, Indian, esate baterako, eskulanari dagokionez faserik intentsiboenaz etxean arduratzen diren langileek baldintza prekarioenak izan ohi dituzte: ez dute lan-segurtasunik, oso soldata txikiak jasotzen dituzte eta egoera arriskutsuetan lan egin behar izaten dute.

Fitxa tekniko honek oinetakoen mundu mailako ekoizpenaren egoera laburbiltzen du, hala nola giza eskubideetan eta ingurumenean dituen ondorio larriak eta modu urgentean aplikatu beharko liratekeen aldaketak.

1. Errumanian izan ezik. LANE (2014), 5. orrialdea: http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed_dialogue/@sector/documents/publication/wcms_300463.pdf

2. Zapata baten goialdea (pala) oinbularra estaltzen duten zati edo atal guztiek osatzen dute. <http://allaboutshoes-toeslayer.blogspot.co.uk/2009/10/anatomy-of-shoe-according-to-mcphoil.html>



Oinetakoen ekoizpena munduan: egitateak eta datuak


2013an, munduan 22.000 milioi zapata ekoizten ziren³, hiru zapata pare laguneko⁴, hain zuzen. Gehiengoa -%40a- Europan saldu zen, eta ondoren Txinan eta AEBn. Azken horrek dauka munduko tasarik handiena oinetakoen kontsumoari dagokionez, batez beste 7 pare laguneko eta urteko, eta Alemaniak, Japoniak eta Britainia Handiak jarraitzen diote (5 pare laguneko eta urteko)⁵.

Oinetakoen mundu mailako ekoizpenaren %87a Asiari dagokio. Txina da, alde handiarekin, fabrikatzaile handiena (2014an, 14.600 milioi zapata pare ekoitzi zituen), eta India, Brasil, Vietnam eta Indonesia doazkio atzetik. Bestetik, Italia da Europako burua

eta hamargarren ekoizlea mundu mailan⁶.

Europan, Europan, sektore honetako enpresa ekoizleen kopuruak behera egin du, esternalizazioa handitu egin baita lan-berme gutxiago eta soldata txikiagoak dituzten herrialdeetarantz⁷.

Laburbilduta, Asia da mundu mailako zapata esportatzailea, eta Europa, berriz, inportatzaile nagusia. Ondoko grafikoek erakusten dute Asian ekoiztutako oinetakoen gehiengoa beste kontinenteetara esportatzen dela, eta Europan fabrikatzen eta bertara inportatzen diren gehienak haren mugen barruan banatzen direla, zati txiki bat besterik ez esportatuta.



1. grafikoa. Oinetakoen merkataritza (kontinentearen kanpoalderantz)

Iturria: guk egina World Footwear Yearbook 2014 (14. or.) urtekariko datuak oinarri.

Esportaziora bideraturiko oinetakoen batez besteko prezioa⁸ etengabe hazi da azken urteotan, batik bat ekoizpen-kostuen igoerari esker⁹. Prezio horiek zeharo desberdinak dira Asian eta Europan, sektoreko esportatzaile garrantzitsuenetan, hain zuzen. 2013an, adibidez, Txinan 3,45 euro ordaintzen ziren batez beste zapata pare bakoitzagatik; Alemanian, aldiz, batez bestekoa 17,97 eurokoa zen¹⁰.

3. grafikoak erakusten duen moduan, Europako kontinente barruko merkataritza da oinetakoen mundu mailako merkataritzaren zatirik garrantzitsuen, esportazio guztien ia herena baitauka. Nahiz eta Europa izan Asiatik datozen oinetakoen inportatzaile nagusia, kontinente horretatik Europarako merkataritza mundu mailako guztirakoaren %19a baino ez da.

3. Duela gutxiagoko (2013) datuak, World Footwear Yearbook 2014 (5. or.) urtekaritik jasoak. www.worldfootwear.com

4. Ondoko eragiketatik ateratako kopurua: 22.000 zapata pare zati 7.278 milioi lagun munduan.

5. Ondoko eragiketatik ateratako kopurua: saldutako zapata kopurua zati munduko biztanleria.

6. World Footwear Yearbook 2014, 5. orrialdea.


7. Europako Batzordea (2015): http://ec.europa.eu/growth/sectors/fashion/footwear/eu-industry/index_en.htm

8. <http://www.shoepassion.de/blog/statistiken-der-schuhwirtschaft-europa-ist-groester-schuhimporteur>

9. Esportazio-prezioa esportaziora bideraturiko zapata batzuegatik ordaindutako (edo ordainduko den) prezioaren baliokidea da.

10. Ekoizpen-kostuen igoera lehengaien garestitzeak eragin du, esaterako, larruaren fabrikaziora bideraturiko prozesatu gabeko larruena, baita soldaten igoera txikiak ere.

11. World Footwear Yearbook 2014, 8.-9. orrialdeak.




2. grafikoa. Oinetakoen mundu mailako merkataritzako balio erantsiaren katea (%)

Iturria: *guk egin* World Footwear Yearbook 2014 (14. or.) urtekariko datuak oinarri.



4. grafikoak argi eta garbi erakusten ditu kiroletako zapatilak ekoiztearen kostu xehatuak eta txikizkariari dagokion marjina komertzialaren eragina. Indonesian eginiko zapatila batzuen kostu xehatuak aztertuta, nabarmena da marka handiek eta txikizkariak euren gaitasunak dutela etekin zati handi bat garrantzitsua, eta etekinok ez dituztela partekatzen zapatilak ekoizteaz arduratzen diren langileekin.

3. grafikoak erakusten duen bezala, markaren enpresa jabeak 20 euroan ordaindu zizkion kiroletako zapatilen fabrikatzaileari, eta



3. grafikoa. Kiroletako zapatila batzuen prezioaren azterketa

Iturria: *guk egina*¹³ Ropa Limpia Kanpainako (2013)¹⁴ datuak oinarri.

ondoren 50 euroan saldu zizkion banatzaileari. Txikizkariak 55 euroan erosi zituen, eta, azkenik, erosleak 120 euro ordaintzen ditu modeloko dendan.

3. grafikoko kostuen xehakapenak argi eta garbi erakusten du publikoarentzako salneurriaren %2a baino zertxobait gehiago besterik ez dela bideratzen oinetakoak egiteaz arduratzen diren langileen soldatak ordaintzera, eta guztirakoaren ia laurden bat markarentzat eta heren ederra txikizkariarentzat direla. Hots, oinetakoen ekoizpenak eragindako balioaren zatirik handiena ez da geratzen herrialde ekoizleetan; prozesuaren beste fase batzuk, publizitatea eta diseinua, kasu, gauzatzen diren herrialdeei ekartzen die onura. Finean, prezioaren zati oso-oso txiki batek bukatzen du oinetakoak ekoizteko funtsezko eskulana egiten duten pertsonen eskuetan.

12. EBko estatuek aplikatzen duten BEZ tasaren batez bestekoan oinarrituta (%20), %15 eta %25 artean dagoena.

13. Kopuru hauek Ropa Limpia Kanpainak egindako kalkuluetan oinarritzen dira, kiroletako oinetakoen balio-harrapaketa azterketa bat oinarri, kontuan hartuta hainbat kasuren adibideak eta beste faktore batzuk, zehazki banatzaileak eta azken urteotako ekoizpen-kostuen igoera. Kalkuluak egin ziren Hohenheimeko Unibertsitateko Ekonomia eta Gizarte Zientzien Fakultateko master baten baitako tesiaren testuinguruan. University of Hohenheim, 2013: Tracing the Geography of Value Capture / Global Commodity Chain in the Sport Equipment / Sport Shoe Industry.

14. Ropa Limpia Kanpaina (2013): <http://www.cleanclothes.org/img/PriceMarkUpShoe.jpg/view>

Oinetakoen hornidura-katea

Oro har, oinetakoen hornidura-kateak hiru etapa izaten ditu: sorkuntza eta diseinua, ekoizpena eta txikizkako salmenta¹⁵. Garrantzitsua da kontuan hartzea, zapata modeloaren arabera, prozesu horien ezaugarriak nabarmen alda daitezkeela. Hortaz, eskularen soldatak eta lan-baldintzak ere erabat alda daitezke oinetakoen ezaugarrien eta prezioaren arabera.

1. Sorkuntza eta diseinua

Hornidura-katearen lehen fasea markak gauzatu du, eta zehazki ikerketa- eta garapen-jardueretan datza. Enpresako produktu-zuzendaritzak zapata merkaturatu baino urte eta erdi inguru lehenago ekiten dio zapataren garapen-prozesuari. Mundu mailako marketin-kanpaina baten baitakoa baldin bada, garapen-prozesua zapata salmentan jarri baino bi urte lehenago ere has daiteke. Ekoizpen-guneen hautaketa produktua egiteko beharrezko materialen mende egoten da, eta materialok produktuaren sorkuntza-fasean zehazten dira. Sorkuntza bukatutakoan, markako diseinu-taldea prototipoak lantzen hasten da, eta, ondoren, probazko lehen eskari bat egin diezaieke hornitzaileei.

2. Ekoizpena

Gaingiroki, oinetakoen ekoizpena bi etapatan bana daiteke: larruaren moduko lehengaien prozesamendua eta zapaten fabrikazioa,

moztea, jostea eta osagaiak batzea barne.

Lehenbiziko ekoizpen-etapak eskulan-prozesu intentsibo askoren mende egoten dira, eta prozesuok aldatu egiten dira lanerako materialen arabera. Larrua zurratzeko prozesuan bakarrik alde zurreko urrats asko ematen dira: zurratzea, zurratze ostekoa, lehortzea, berriz zurratzea eta akaberak. Kromoa, substantzia kimiko toxikoa, larruzko oinetakoen %85aren en zurraketan erabiltzen da. Maiz, kromoaren erabilerak lan-eskubideen eta giza eskubideen urraketa larriak eragiten ditu, izan ere, munduko leku askotako zurrategietan ez dira betetzen laneko segurtasun- eta osasun-arauak.

Lehengaiak prozesatzea bukatutakoan, oinetakoak fabrikatzeko, oinarrizko bi lan-mota egin behar dira. Batetik, lan-prozesu mekanizatuak, lantegi barruan egiten direnak; bestetik, etxean bakarka jardun ohi duen eskulan espezializatua modu intentsiboan behar dituzten lanak. Normalean, zapataren zatirik handiena lantegi batean egiten da, ekoizpen-prozesuaren fase bat besterik ez zaie kanpora ateratzen norbere kontura etxean lan egiten duten pertsoneri: oinetakoen goialdearen josketa.

Oro har, oinetakoak fabrikatu bitartean, prozesu ugari gertatzen dira. Esate baterako, kiroletako zapatila batek, Asics-en Gel

Argazkia: SüDWIND / Regina Webhofer eta Christina Schröder



Naga Bai*, 65 urte. Jostun egiten du behar etxetik

Lekua: Ambur Eskualdea, India. 20 urte baino gehiago daramatza Naga Baik zapatak josten etxean. Egun osoa ematen du zapata-palak josten, bitartekari batek goizean ematen dizkio eta arratsaldean jasotzen ditu.

Zapata pare bakoitzagatik 1,14 euro inguru jasotzen ditu. Lanegun bakoitzean, gehienez ere 10 zapata pare jos ditzake, beraz, 1,5 euro inguruko diru-sarrera izaten du egunean. Kontuan hartuta kilo bat arrozek 0,60 euro balio deza-keela, ez zaio iristen bizitzeko. Etxetik lan egiten duenez, Naga Baik ez du inolako lan-prestaziorako eskubiderik, pentsioa edo aseguru medikoa izateko, adibidez.

*Naga Bai ez da bere benetako izena, hori Cambia Tus Zapatos proiektuak baino ez du ezagutzen, eta langilearen segurtasuna bermatzeko ezkututzen du.

Kayano-k, kasu, 26 material-mota eta 65 osagai izan ditzake, eta horiek prozesatzeko 360 urrats inguru burutu behar dira¹⁶.

3. Txikizkako salmenta

Hornidura-katearen bukaeran, hainbat txikizkari, sukurtsal eta denda daude zapatak merkaturatzeko.

Behin betiko merkaturatu baino sei-bederatzi hil lehenago, modeloak handizkarietzako berariazko azoketan aurkezten dira. Fabrikatzaileei eginiko eskariak handiak izan behar dira; bakarrik fabrikatuko dute handizkari eskaria kopuru jakin bat baino handiagoa baldin bada. Hortaz, eskulanak presio handia jasan dezake eskariak entregatzeko, horretarako adosturiko epemugaren arabera.

3. grafikoak erakusten du salmentarako azken prezioaren zati garrantzitsu bat txikizkari kalkuluen mende dagoela. Ondorioz, gero eta marka gehiagok beren egitura eta denda txikizkariak dituzte, gero aukera ematen dietelako haien etekin-marjina handitzeko. Camper marka espainiarrak, esaterako, marka bakarreko 200denda ditu dagoeneko, horietako 30 Espainiako estatuan¹⁷.

Oinetakoen ekoizpenaren ondorio larriak

Jantzigintzaren industrian bezala, oinetakoen sektorean ohikoak dira giza eskubideen urraketak.

Sarri, herrialde ekoizleetako langileek ez dute lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzen, askoz gutxiago soldata duina, Naga Bai

langile indiarren kasuak argi erakusten duen bezala.

Oinetakoak fabrikatu bitartean, lan arriskutsuak betetzen dira, batik bat zurrategietan, eta, maiz, ez dira betetzen beharrezko segurtasun-arauak, ondorio oso kaltegarriak eragin dezakeena.

Kasu esanguratsua izan zen 2015eko urtarilaren 15eko gauean, bederatzi langile eta zaindari bat hil ziren Tamil Nadu (India) zurrategi batean, langileak lo zeudela hondakinak birziklatzeko tanga bat erori zenean¹⁸. Hamar gizonak tangaren hausturak eragindako uholdearen ondorioz hil ziren; tangak, antza, ez zituen betetzen segurtasun-arauak, ez haren eraikuntzaren ezaugarri zegoenez, ez baruan zuen lokatz-kopuru handiari zegoenez, lokatzok oso-oso toxikoak baziren ere, kromoa eta bestelako substantzia toxikoak baitzituen¹⁹.

Langileek pairatzen dituzten lan-eskubideen etengabeko urraketez gain, oinetakoen ekoizpenak irispide luzeko ondorio ekologikoak ere baditu. Larruzko zapaten produkzioak lur- eta ur-baliabide ugari kontsumitzen ditu. Kalkulatzen da 2015ean, larruzko bota batzuk egiteko, 25.000 litro ur eta 50 m²-ko lur-hedadura behar izan zirela²⁰.

Zer aldatu behar da?

Oinetakoen merkataritzaren globalizazioak ekoizpenaren deslokalizazioa eragin du,

errenta baxukoak deritzen herrialdegarantz, non lan-baldintza txarrak errealitate orokortua diren.

Enpresek zein administrazioak egoera hori hobetzeko erantzukizuna dute. Berebiziko garrantzia dauka soldatak nahikoak izatea langileen eta beren familien beharrak asetzeko, eta kromoaz baliaturiko larruaren zurraketa debekatzea.

Horrez gain, enpresek eta administrazioak aktiboki sustatu behar dituzte ekimenak oinetakoen hornidura-kate osoan gardentasuna areagotzeko, ekoizpenaren lehenbiziko etapetatik, larruaren tratamendutik, kasu, azken fasera arte, zapatak publikoari saldu arte, alegia. Guztiok dugu eskubidea zapatak nola egiten diren jakiteko. Horrek berekin dakar zurrategi eta lantegietako lan-baldintzak ezagutzea, hala nola langileek soldata duina jasotzen ote duten jakitea. Halaber, garrantzitsu baino garrantzitsuagoa da jakitea gure oinetakoen ekoizpena irispide handiko eta atzera bueltarik gabeko balizko ondorioak izaten ari den ingurumenean.

Zeharo ezinbestekoa da oinetakoen herrialde inportatzaileetako eragile inplikatu guztiek -markak, gobernuak eta kontsumitzaileak barne- eragitea eta beren erantzukizunak betetzea, sektorea erabat iraunkorra izan dadin bermatzeko. Beharrezko aldaketa soilik gertatuko da mundu mailako neurriak hartzen badira lan-baldintza justu, duin eta gizati-

arrak eskainiko dituen industria sustatzeko. Finean, markena, gobernuena eta herritarrena da erantzukizuna oinetakoen industriak ez ditzan pobreziara kondenatu oinetakoen ekoizpenean lan egiten duten pertsonak, eta haiena da, halaber, neurriak hartzeko ardua langile horiek bizimodu seguru eta duina izan dezaten.

15. Garraioa eta logistika izan liteke laugarren urrats nabarmengarria. Garraioari eta hornitzaileen eta garraio-enpresen artean adosturiko entregatze-baldintzei dagokienez, harreman-sare konplexu eta opakua dago, zapata modeloaren arabera aldatzen diren merkataritzako fluxuak eta ordainketa-baldintzak. Hornidura-katearen fase hau ez da garatu atal honetan.

16. Cheah et al. 2013: Manufacturing-focused emissions reductions in footwear production, *Journal of Cleaner Production*, Vol. 44, p. 20

17. Moda.es (2015): <http://www.modaes.es/empresa/20140703/los-duenos-de-camper-lanzan-una-cadena-de-calzado-de-lujo-para-competir-en-europa.html>

18. The Indian Express (2015): http://www.newindianexpress.com/states/tamil_nadu/10-Workers-Die-as-Effluent-Tank-Explodes-in-Ranipet/2015/02/01/article2646963.ece

19. The Hindu (2015): http://www.thehindu.com/news/national/tamil-nadu/ranipet-tannery-tragedy-safety-trapped-in-negligence/article6844997.ece?utm_source=MostCommented&utm_medium=Homepage&utm_campaign=WidgetPromo

20. Amigos de la Tierra (2015), 11.-14. orrialdeak: <https://www.foe.co.uk/sites/default/files/downloads/mind-your-step-report-76803.pdf>

Argitalpenari buruzko informazioa:

Argitaratzailea: SETEM Federación

C. Gaztambide 50, 28015 Madrid

915499128

www.setem.org

comunicacion@setem.org

Bartzelonan argitaratua 2015eko uztailean

Egilea: Anton Pieper (Südwind e. V., Austria)

Koordinazioa: Tanja K.jeldgaard (CCC
Denmark, Danimarka)

Itzulpena: Usoa Alberdi Kulturgintza- AEK

Edizioa: Itziar Pérez (SETEM Nafarroa), Alba
Trepát (SETEM Federación)

Diseinua: Re-Dress, Krista Johanne Stentoft
(CCC Denmark, Danimarka)

Maketazioa: Concepte Gràfic



Campaña
Ropa Limpia



Clean Clothes
Campaign

Fitxa tekniko hau Europako Batasunaren laguntza ekonomikoarekin egin da. Fitxaren edukien gaineko erantzukizun osoa SETEMena da, eta edukioak ez dituzte inola ere Europako Batasunaren iritziak islatzen.



our world
our dignity
our future

2015 European Year for Development



CAMBIA TUS ZAPATOS Europako 15 erakundek eta Asiako 3k osaturiko patzuergoa da. Defendatzen dugu oinetakoen industriako langileek eskubidea dutela soldata duina jasotzeko eta lanean osasuna eta segurtasuna babes dakizkien. Halaber, kontsumitzaileok eskubidea dugula produktu seguruak eskuratzeko eta zapaten ekoizpen-prozesuan gardentasuna izateko.